

# 3 Mintegiak eta Jardunaldiak

## Udako ikastaroak



Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, UPV/EHUrekin lankidetzan, Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan mintegi bat antolatu du. 2008. urtean ikastaroaren izena “Itxaropen ekonomikoak ziklo aldaketaren aurrean” da.

Bere helburua munduan, Europan, Estatuan nahiz Euskal Herrian egun bizi den egoera ekonomikoari buruz nahiz epe laburrean egoera horren gaineko aurreikuspenaz ikuspegi zabal bat ematea da. Aldi berean, epe laburrean ekonomiaren bilakaeran ageri litezkeen arazoak eta arriskuak identifikatu nahi dira.

# 3 Mintegiak eta Jardunaldiak

## Ekonomiaren EAEko Behatokia



Ekonomiaren EAEko Behatokia Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzaren ekimena da, ekonomiaren arloen eta administrazioaren arteko iritzi trukaketa bultzatzeko helburuarekin jaio zena.

Sei hilabetean behin egiten diren jardunaldi horietan, EAEko eta beraren inguruneko koiuntura ekonomikoa eta etorkizun hurbilenari buruzko aurreikuspenak azaltzen dira. Halaber, gaurkotasuneko gai bati buruzko zenbait aurkezpen ere egiten dira. Parte hartze horiek osatzeko, tarte zabala uzten da eztabaidarako.